

2008-ko Irailaren 25-ekoa
25 Septembre 2008

ISSN 0767-7643

1,10 €

N° 2974

ASTERARI EUSKALDUNA / HEBDOMADAIRE BASQUE

*Bidea ez da sekulan luzea izaiten
adixkide bat baduzularik zure
ondoan.*

(Japoniako erran zaharra)

UDAZKENA

Eta hara, astelehenean hasi omen zauku udazkena, denboran aintzek larrazkena deitzen ginuen sasoina. Udazken izen hori guziz egokia daukate naski urtean bi sasoin direla dioteneak, uda eta negua, hunek hiru hilabete baizik ez irauten, besteak aldiz bederatz, udaberria, uda betea eta udazkena, beti uda nolazpait ... Elkarte frangorentzat, udako burrunba hartarik landa, urte berri bati plantatzeko keinka dugu udazkenean sartzearekin. Eskolak berriz hasiak, mahatsak eta iratzeak bildu behar, lehen baino aise iratze gutiago haatik, eskualde hortarik behar-orduak ttipitu baitira, eremu aintz gelditzen orai, hau artetik erraiteko, iratzeak nehork pikatu gabe... Gaztenak ere biltzen ahal, onjoak ere izaiten, lekuka segurik, ihizia idekia, untsalaz urtxoak ere laster agertuko, ez da harritzeko frangotan aditzen baita udazkena ditakeela Euskal-Herrian urteko sasoinik ederrena, egunak poliki laburturik ere, laburtze bat oraino gehiago sendituko dena tenorez kanbiatzearekin...

Horiek hola, batzu ari udako konduen egiten, ardura errepikatuz uda sasoin hori ez dela hain ona izan ez eta ere hain txarra... Bien arteko zerbait denen buru... Bestalde, halako beldur bat bezala hedatua edo hedatzen ari, urrunetik heldu zaukuna, Ipar-Ameriketako banko batzuek arrunt afera txarrak egin dituztela eta gure Europa zaharrean ere ixorio horrek ondorio latz batzu ukaiten ahal dituela... Bestalde oraino, betiko saltsak. Elgar hobeki hartzeko gisan zubigintzari artzeko partez, zonbat nahaskeria! Batzuk bortizkeriari ez uko egin nahi, deus onik ez duelarik alta, beste batzu dena larderia eta mendekio, lotsagarri baita ikustea nola jokatzen diren... Hemen gazte batzu preso altxatuz eta preso atxikiz itxura guzien arabera funtsezko arrazoinik batere gabe, hantxetan berriz holako edo halako alderdia debekatuz, ahantziz holako debeku bakoitza demokraziari eman ostiko bat dela, jende asko ez utziz beren gogoko sailaren gostuan segitzera. Eskualde hortarik, aurten, hasi orduko, udazkenak ez ote duen ba halako negu aire hits bat...

J-B D



ANGELUKO ARGILEAK KOROAK QUEBEC-EN BARNAN

Angeluko Argileak koroa sortu zuen, duela 25 urte, EDF-GDF-ko enpresa komiteak, René Borda buru. 40 kantari dauzka koroak gaur, denak gizonak, erditsuak EDF-arentzat lanean ari direnak, koroko lehendakaria beti horien artean delarik hautatua, oraikoa Daniel Pous. Gizon koroa balinbada, gidaria haatik emazte bat dute, Patricia Arhancet, eskusoinu eta piano erakaslea, André Lassus gidari ohiaren segida harturik. Koroaren erreperatorioan, euskal kantuak nagusiki, elizakoak ala profanoak, besta giroko kantu aiosak gehienak. Euskal Herria eta Frantzia guziaz kurrituak ditu Argileak koroak, Korsikan ere arizantik, eta joanden agorrilean, 14etik 27ra, Quebec-en gainti da ibili, lurralde haren sortzearen 400. urtemugakari gomita ukanik. Bidaia hortaz mintzatu zaiku Yvon Lambure baionesa, margolari ezaguna, Argileak koroko kantaria.

Kontzertu arrakastatsuak

Miarritzetik abiatu agorrilaren 14ean, lehen batean Quebec-eko hirian dira egon, Erredontore fraileek aterbeturik, Quebec probintziako hiriburuan (lurraldeak eta hiriburuak izen bera dute). Handik Trois-Pistoles hirirat, hango eliza mukurru bete batean eskaini duten kontzertua xoragarria izan delarik, han bildua zen jende guziaren loriarako. Eta biharamuneko meza kantatua ere zer atsegina! Hiri hortako familiek zituzten Argileak-ekoak aterbetzen. Han dute Bastrach deitzen den quebecar baten ezagutza egin, Bastrach horrek arbasoak Euskal Herrikoak izanki, Basterretche baiones armadorearen familiakoak, denboran Arkadiara erbesteratuak izanak. Eta Bastrach horrek St Michel de Bellechasse-n antolatua zuen kontzertuak sekulako arrakasta ukan du. Ondotik, han bereko *Atmosphère*



Argileak koroa, Quebec-en 400 urteburukari eskaintako kontzertuan

MONTREAL-eko EUSKALDÜNER

Herri hontan girade, oro bijitari Eskertzen zütüegü denek algarreki Argileak kantari, egiaz ederki Bazter eder horietan, jente güziera.

Lehen ibili dira heben mariñelak Ixtoria eginez, bilatzez balenak Egiaz lüze ziren itsaso bideak Alfa horier esker, egün harremanak.

Kebeken Eüskaldünek badüe gogoa Begiratzeko beti Herriko giroa Kantore eta dantza, ber amodioa Algarrekin emaitzez mintzaje goxoa.

Jean Bordaxar

Jean Bordaxar
bertsuka



taldea da Argileak-ekoetaz arduratu, koro quebecar hori zuela Euskal Herrian errezebitu 2001ean angeluar koroak, adiskidetasun bideak urratuz.

Montreal-en, Jean Bordaxar xiberotarraren bertsuak

Egonaldiaren ondar egunetan, Montreal-en, Beñat eta Felixi Artayet-ek bai eta Jean Goyenette Montrealgo Euskal Etxeko lehendakariak diete ongi-etorria egin, han ere kontzertu bat eskaintzeko parada zaukatela. Eta han aurkitu dute ere Jean Bordaxar xiberotar kantaria, oporretan han gainti zabilana. Hunek bertsu pollit batzu ditu kari hortara moldatu, angeluar koroa zuela gisa hortaz agurtzen. Duela 5 urte han gainti ibilia zen jadanik xiberotar kantaria, bere taldearekin. Memento huntan, diska berri baten prestatzen ari da bere taldearekin, a capella, datorren urtean plazaratuko duena. Hori aitzin haatik, talde horren preziatzeko parada ukanen dugu urriaren 25ean, Mauleko Jai Alaian, Pipas Larrandaburu eta hunen lagunek muntatzen ari duten "Aidez aire" ikusgarrian.

Argileak koroak orotara lau kontzertu handi eskaini ditu Quebec-eko lurretan bai eta ostatueta kantaldi frango, bazter guziak airostuz, Beñat Balerdi koroko kantari alai denen aitzindari. Kantatzeaz bertalde, hango xoko ederrak ere dituzte bisitatu, Ste Anne de Beaupré, Ile aux Basques, Montmorency-ko turrustak, Ile d'Orléans, Ile aux Coudres, Huron indioen herri-ka bat, St Laurent ibaian gainti ere ibiliz...



Trois-Pistoles hiriko elizan

HERRIAK JENDEAK

• **Israelen** bozak eman dituzte Ehud Olmert lehen ministroaren lekuan beste bat ezartzeko, horrek bere paperak erreak izanez afera txarretan. Kadima partiduko

andere bat da irabazdun atera, Tzipi Livni, ehuneko 43,1 boz bilduz doidoia, aldiz Shaul Mofaz kanpoko zeren ministroak 42 ateratzen zituelarik bere aldetik. 50 urteko andere irabazleak 42 egun ditu bakarrik guber



Tzipi Livni

berri baten xutik ezartzeko eta hortaraten ez bada berriz bozak eman beharko dituzte 90 egun barne. Horrek erran nahi du ez duela nehorke ere irabazia partida hori eta berriz ere beldurtzeko da ez ote den Benyamin Netanyahu bat, Likud alderdikoa bere paradaren beha egoki. Baina Tzipi Livni anderea da oraino lehen.

• **Georgian** ez dira oraino gauzak garbi bate-re. Herri horrek bere independentzia hautua egin eta jakinaraziz geroz hilak eta ihes joanak badituzte zernahi, herrian eginak diren makurak bestalde, funditu diren elizetaraino. Denaden, jakin behar da ortodoxo erlisioneak baduela leku handia horgo jendearen. Baina berek diote ez dituela erlisioneak berexen batere baina biltzen. Eta ere, izanen dutela berek herriz kanpokoen laguntzaren beharra, Europa eta beste.

• **Hegoameriketari** Iparramerikaren kontrako haizea berotzen ari da. Bolivian, Evo Morales presidentak kanporatu du amerikar enbaxadore-rea zerbait nahasmenturen akusazionearekin eta halaber Venezuelako Hugo Chavezek beste hainbeste egin dio ere Washingtoneko enbaxadoreari eta bixtan da Ameriketarik mendekia berarekin kasatu dutela heiena. Gainera, Kolunbiak eta Peruk ere beren gaisako kopeta txarra erakutsi diote Amerika handiari, hemen ez baitu balio xehetasun guzietan sar gaiten gu. Horiek orok erakusten dute hai-

zea itzultzen ari dela hor ere eta Errusia emeki emeki sartzen ari dela

Amerikari buruz hozten ari diren lekuetan. Eta bestalde, nork ez daki badirela Amerika latin hortan petrolio eta gaza aurki ditazkeen lekuak ere. Intresak eta tratuak lehenik, konfiantza gero heldu da eta adiskidetasuna halaber.

• **Nepal** herrian, gero ta egun txarragoak heldu zaizkie Katmanduko gobernu maoistarekin, Tibetetik ihesi etorri jendeketeri. Maoista horiek, beren gobernu berria xutik ezarri-ta hiru ilabeteren buruko, jakinarazi dute kanpoa dutela paperik ez duten tibetar guziek. Erabaki hori hartu zuen lehen ministroak (Kamal Dahal 53 urte) bere lehen bisitan Nepal eta Xina bi herrien adiskidetasuna goretzi zuelarik. Hots, Pekinera helduta lau egunen buruko erakutsi zituen bere xede garratzak, beretzat gerillero izenez besterik etzuelarik nahi.

• **Pakistaneko** terroristen kontrako gudu garrantza eman gogo bide du Bush presidentak herri horren ipar-mendebalean Al Qaidako talibanak dituelarik partida. Washingtonen arabera Pakistaneko armadak ez omen du aski fermutasun erakusten Afganistango talibanen kontra. New York Times berrikeriak zion George Bushen berak zuela baimen ixila emana joan den uztailaren Pakistaneko eraso horientzat. Anartean, ikaragarriko atentatu batek suntsitu du hirinagusiko hotel handiena, orotar 60 hil eta zernahi kolpatu.

• **Kuba** herria biziki garratzi jo zuela lehenik Gustav orrona tenpesta harrigarriak eta laster ondolik lke deitu beste batek ez dute ahantzia gure irakurleek. Ez-eta auzoko Amerika handiaren laguntza ez zuela onartu ere herri horreko aspaldiko enbargo-gaztigu hura ez diolako laxoagotzen Bush jaunaren herriak. Huna halere gauzak eztiagotzen hasi zaizkola Fidel Castoren herri komunistari. Alde batetik europar batasunak bere solasketa eta tratu batzuen ateak ideki dizkio Kubari. Eta bestetik, 175 miliun euroren laguntzak egitekotan da Amerika, funditu ziren etxeen berregiteko zur eta beste fornitzetan.

• **Xinako** enpresa haundi batek esne errauts saltzeetan huts zerbait eginik, izan dira haurrak pozoindatu direnak, 6244 haur hunkituak direnak erran dutenaz ; ospitaletaratu direnak ere horietan eta hil batzu heietan gehiago dena. Horren ondorioz badira produktu horren saltzea geldiarazi dutena, baina exportazioenak hunkitu bazter herrietan hala nola Holanda. Xinan berean ez dira beti hain minbera izan, alta aspaldi ukanak zituztelarik behar ziren abisuak.

HEGOALDEAN GAINDI



ETAk militar bat hil du Santoñan

Santoñan (Kantabrian) Patronatu Militararen kontra ezarri auto-bonbaren zartatzeak pertsona bat hil eta beste bost zauritu ditu, hoietako bat arras larriki. ETA-ren izenean, Donostiako DYAr egindako telefono deian, pertsona batek bonbaren kokapenaren berri emana zuen. Hildakoa 46 urteko Luis Conde de la Cruz militarra zen. Beste militar bat larriki zauritua izan da eta Laredoko Ospitalera eramana dute.

Polizian Ikerketaren arabera, autoak 100 kilo lehergai bazituen eta Frantziaren prestatua izana zen. Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuko Barne ministroak erran duenez, Segurtasun Indarrek uste dute ETA-k Santoñan, Gasteizen eta Ondarroan erabilitako bomba-autoak Frantziaren prestatuak zituela.

Bi auto-bomba zartarazi ditu ETAk Gasteizen eta Ondarroan

ETA-k bi bomba-auto zapartarazi ditu Vital Kutzaren egoitza berriaren aurrean, Gasteizen, eta Ondarroako (Bizkaia) polizia-etxearen ondoan. Leherketek kalte material handiak eragin dituzte. Gasteizeko bonbak kalte materialaz aparte, zauririk ez badu eragin, zazpi lagun zauritu ditu Ondarroan, hiru ertzain eta lau herritar. Adituen arabera zinezko sarraskia egin nahi izan du ETA-k Ondarroako bonbarekin Ertzaintzaren kontra. Gasteizeko auto bonbaren berri emana izan bazen dei baten bidez, Ondarroakoan aldiz ez da abisurik izan. Bestalde Espainiako Polizia Nazionalako agenteek lapabomba bat atzeman dute polizia baten auto partikularren azpian eratzia. Polizak 10 kilometra egin ditu auto azpian lehergailua bazeramala. Basauriko Polizia Nazionalaren egoitzara heldu denean ikusi dute lehergailua autoaren azpian.



Deustuko unibertsitatean egin biltzar batean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak gaitzetsi ditu bipil bipila asteburuko atentatuak.

Eusko Abertzale Ekintza - Accion Nacionalista Vasca (EAE-ANV) eta EHAK legez kanpo

Espainiako Auzitegi Gorenak, Eusko Abertzale Ekintza - Accion Nacionalista Vasca (EAE-ANV) alderdia legez kanpo uztea eta desegitea erabaki du. Halaber EHAK ezker abertzaleko alderdia. Alderdien legean oinarritu du auzitegiak bere erabakia, bi alderdiek ETArekin zer ikusia dutelakoan.

Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramailearen arabera neurri hoiek ez dute indarkeriaren bururatzeko eta akordio politikorik ekarriko. Alderdia legez kanpo uztea erabaki politikoa izan da. Arantza Urkaregi ANVko ordezkariaren hitzetan eta erabakia aitzinetik hartua zen, baina hala ere ezker abertzaleak euskal nazioaren aldeko lana segituko duela.

Amnistiaren Aldeko Batzordeko 21 kide preso

Auzitegi nazionalak 8 eta 10 urte arteko preso kondena ezarri die Amnistiaren Aldeko Batzordeko 21 kideei. Julen Arzuaga, Juan Antonio Madariaga eta Ixone Urzelai aske utzi ditu. Zigor handiena Juan Mari Olano, Julen Zelarain eta Aitor Jugori ezarri die. Hamar urteko preso kondena ezarri die eta 8 urtekoa gainerateko 18 kideei. Orotara 27 pertsona ziren auziperatuak : sei xurituak izan dira.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak manifestazioa deitu du helduden urriaren 4-eko Bilbon. Salbuespen egoerari kontra egitea eta "Euskal Herriak askatasuna" lema izanen duen manifestaldia Aita Donostia Plazatik abiatuko da. Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren izenean mintzatu diren Joseba Agudo abokatak eta Manu Errazkin presoaren aitak, beste ehun bat lagun aldean zituztela, salbuespen egoerari kontra egiteko manifestazioan parte hartzeko deia egin diote euskal gizarteari.

ETAko bi preso historikok Batasuna eta ETA kritikatu dituzte

Gara egunkariari bidali eskutitzean, Jose Luis Urrusolo Sistiaga eta Carmen Guisasaola ETAko preso historikoek ezker abertzalearen parte haundi batek bere burua ez duela gaur egungo Batasunaren ordezkatuta ikusten idatzi dute. ETAko bi presoak Loiolako akordioaren alde agertu dira erranez Euskal Herriko presondegiatan bilduak izanez gero akordio politiko baten lortzea eta gauzatzea posible litzatekela. Euskal Preso Politikoen Kolektibotik (EPPK) alde egin dutela azpimarratzen dute bi presoek eta akordio politikoak orain duela zenbait urte lortuta izan behar zuela Ipar Irlandako moduan. Eskutitzaren bururatzeko, euskal presoak Euskal Herriko kartzelatan bilduta egon balira, Irlandan gertatu zen moduan, Euskal Herrian ere negoziazioa eta akordioaren bidea lortzea posible izanen zela diote.

Gerla zibilean desagertu 130.000 pertsonen izenak eskuratu ditu Garzon epaileak

Gerla Zibilean eta Frankismoaren garaian desagertu zirenen familien zazpi taldek, zerrendak utzi dizkiote Garzon epaileari. Orotara 130 137 pertsonen izenak. Gure aitona-amona asko, gaurko bezalako eguna desiratzen hil ziren. Haien omenez ari gira justizia egiten deklaratu du Granadako ordezkariak.

Erdi Paleolitiko Aroko aztarnak aurkitu dituzte Lemoan, Bizkaian

Euskal Herriko giza bizitzaren herresto zaharrenetarik direnak aurkitu dituzte Lemoan, Bizkaian. Duela 300.000 eta 115.000 urte artekoak dira. Lemoan (Bizkaia) dagoen Arlanpe gunean aurkitu dituzte giza-bizitzaren aztarnak, lekuko harriekin egin tresnak, hoiaren artean aizkora eta beste silexezko tresnak. Bestalde, gizakiak jaten zituen animalen aztarnak (ahuntz, orein, bisonte eta errinozeronte) ere aurkitu dituzte, halaber haragijale baten aztarnak ere (hartz, otso, pantera eta hiena). Mendi-etakoekin (Sopelana), Irikaitzekoekin (Zestoa) eta Lezetxikiakoekin (Arrasate), Euskadiko zaharrenetarik dira. Arlanpeko ikerketari esker jakin da nola bizi ziren Bizkaiko neandertala garaiko jendeak.

Kepa Junkeraren disko berria

Irailean 30ean, Kepa Junkera trikitilariak Etxea disko berria aurkeztuko du. Etxea euskal kanten bilduma da, eta Penintsula osoko hainbat artistaren laguntza izan du kantagintza tradizionalari beste kolore bat emateko.

eGUIL eTA BIHAR

NORK DAKI?

Hauxe dira idiak eta orgak hor berriz! Nolako aferak, zonbat jestu, eta azkenean zer saltsa! Ipar-Ameriketako banko batzu ezulka eta mundu guzia marranta! Egia erran, diru etxe handi batzu arras gaizkituak, ez bakarrik ezul txar batekin, baina hain eri eta hain ahulduak nun Bush-en gobernuak gaitzeko diru laguntza behar ukan baitiote eman, 700 miliar dolar hitzeman segurik ba, sos-alde ikaragarria, bestenez xahu zirela! Munduko burtsa guziak inarrosiak, denak gibelerat ari, baina denak berriz pixkortu halere jakinik odola azkarki berritua ziotela arrunt trenputxartuak zauden heieri... Frantziaren ere beraz, bizpahiru egunez aski giro nahasia izanik, egun hitsago batzuen beldur samin bat sartzen hasia, giro hori berriz lasaitu da. Burtsa oro har berriz goiti ari. Ez denentzat haatik, baitira hor gaindi galtze politak jasan behar dituztenak...

Ainitzen arrangura gisa guziz, afera hori ez dela orobat hortan geldituko. Batzuek diotelarik txarrena oraino ondolik heldu dela... Baina nork daki?

Ixtorio horiekin, buru-hauste gehiago bixtan da frantses gobernuarentzat ere ... Eta **Nicolas Sarkozy** presidentea bera gai hortaz mintzatzekoa da egun hotan. Untsalaz, ortzegun huntan...

MINBERA

Eskuin ala ezker, bada halako giro mintu bat, bazterrak arras minbera. Gobernuan, lanak dituzte beren arteko desadostasun batzu ezin gordez. **François Fillon** gobernuburuak bipil bipila galdetu dio **Michèle Alliot-Marie** barne-minixtroari hoinbeste aipaldi ukaiten duen Edvige izentegiari behar zitziola arrunt beste itxura bat eman... Lehenik uste zuten naski aski zela neska gaixo horri bere arropa poxi bat luzatzea edo laburtzea, baina besterik egin

behar denen buru! Neska biluz gorri ezarri behar eta berriz bezitutu, dena berritik, eta lehen bai lehen, hoztu gabe alabainan! Ez omen da izentegi hortan nehor sartuko hola eta hola, elkarte baten buru delakotz, edo ezagutua hautetsia, apeza, abokata, berrikeria edo holako zerbait delakotz... Gaixtagin eta bazter nahasle ekarrien zerrenda berean.

Bere aldetik, **Jean-Louis Borloo** minixtroak nahiko zituen tasta berriño batzu ezarri ingurumenaren aldekoak omen, plastikaki gutiago balia dezagun eta hola. Tasta "berdeak" naski. Baina edozoin koloretakoa izanikan ere, tasta beti tasta dela eta jadanik hor direnekin badela aski, gobernuburuak ez du utzi bide hortarik segitzera...

Ezkerralde behatuz, esperta behar da, arrunt hortakoa, untsa konprenitzeko zer gertatzen den sozialista alderdian. Gutarteko jendea aise galtzen ahal da. Bi hilabeteren buruan dute bere biltzar nagusia eta dena apailu segitzen dute. Hortan ez da makurrik. Baina iduri baitu orai alderdi berean badirela baten partez lau alderdi segurik, hori da bitxikeria! Denek aitzina laudatzen haatik alderdiaren batasuna!

EMAZTE GEHIAGO

Lekuka zenatur bozak zituzten igandean, orotar 114 alkirentzat. Zenaturren hautesle bozemaile "handiak" deitzen diren horiek, nahiz nik segurik ez dakitan zer duten bestek baino handiagorik... Goazen pasoa...

Ezkerra nausi, 23 alki irabazirik, berek ere uste baino gehiago denen buru. Baina gehiengo eskuinak atxikitzen du halere. Dena den, zenatua - edo senatua, gero eta gehiago hola erraiten baita eta zenaturrak senatore deitzen - doi bat gaztetu da igandeko hauteskunde horiekin eta gainerat orai arte 50 emazte baitziren bakarrik orai badira 75...

Helduden astean ikusi behar nor jarriko den biltzar hortako president.

J-B D

KO STA LDEKO BERRI

"BIZI ONA"-REN MERKATUA



Jakes Sarraillet ere Xuberotik Donibanerak jina, Xuberoko "Bostmendi" basaran edariaren ezagutarazterat.

Donibane Lohizunen, Bizi Ona elkarteak portu bazterrean muntatua zuen joanden larunbatean bere merkatu berezia, arrakasta ederra ukan duena, aroa ere arrunt alde!
Bazen segurki gauza ona frango: arrain, antzara eta ahateki kontserbuko, arno buxundatu eta edari, erreximeta mota asko, gerezi, ahabi eta beste, ardi gasna, biper eta biperki, aran melatu, urdeki, denetarik... Txalaparta xorta batzu ere bazterren aiosteko!
Ohorezko gomitatekin hor ziren Tambourin bai-gorriar aita-semeak, ardi gasna arraroa egiten dutenak.

IKUSI BEHAR...

Donibane Lohizunen, Peyuco Duhart auzapezak zehetasun parrasta bat eman du mediateka baten eraikitze xedeari buruz. Joanden astean ginion hemen berean hautetsi abertzaleen ganik jakina ginuela proiektu hori etzela behin erran bezen laster segurki gauzatuko, untalaz obran hilabete huntan hastekoak zirelarik.
Auzapezak erran du garbiki duela urte pare bat, proiektua hein bat pikoan ezarri zelarik, pentsatzen zutela obra guziak bururatzea hamar milioi euro baino gutxiago xahutuz. Geroztik, urratsak aitzina segitu dituztela bainan denbora behar obreri plantatzeko, eta arte hortan denak goiti joan direla, hots dotzena bat milioi euro behar ateratu eta beharbada hamalau ere! Aldiz, behin hitzemanak ziren laguntzak beti hein berean. Eta mailegatu behar litakeen diruaren intresentzat aise gehiago pagatu behar! Hots, ez dela keinka holako obra sail bati lotzeko, nahiago ukan dutela afera guzia gibelatu. Eta zombait urtez gibelatu hain segur ezen auzapezak hasian hasi erran du ere orai herriarena den liburutegian obra zerbait eginen dela, freskaldi bat behar zaio-

la eman. Ez bide zuen holakorik erranen epe labur batentzat baizik ez balitz gibelatua mediateka berriaren proiektua...
Gisa guziz, ikusi behar gauzak nola itzulikatuko diren ondoko hilabetetan...
Anartean, beti badira diotenak sei milioinekin ere egiten ahal litakeela mediateka pollita, aski litakeena Donibane bezalako hiri batentzat. Beste batzuen arrangura, holako obra ez litakeela bakarrik donibandarentzat bainan auzo herrientzat ere, herri erkidegoak behar lukeela bezaz xede hori bere gain hartu. Bainan hara, holako xede bat ez omen da sartzen erkidegoaren gain ezarri egitekoetan.

ERLAITZ-BIDEDKO BESTA

Kontseilu jeneral edo orokorra antolatzaile, aurten ere horra bezaz Erlaitz-Bideko, edo aintzek dioten bezala Kornixako, besta handia, larunbatean eta igandean, irailak 27 eta 28. Larunbatean, bi bilkura, bat goizean, besta aratsaldean, **Urruñako** Itsas-Mendi zinegelan. Goizeko gaia, garapen iraunkorra deitzen den hori nola susta eta zeri buruz... Aratsaldekoa, Erlaitz-bideaz hain xuxen. Biharamunean, besta, ausagailu askorekin, Hendaiatik Zibururat, Urruñako itsas-bazter eder hortan barna, Abbadiako jauregitik eta Zokoaraino. Karia hortarat, jaz bezala, itsas hegiko errebidea autoentzat zerratu izanen da igandean, goizeko 10-etarik goiti

MUGIMENDU AINITZ

Aroa ere gisa hartakoa, bazen mugimendu joanden asteburu guzian bai **Donibanen** eta bai **Ziburun**. Jende frango bazter ikuska, uda ondareko giro goxoaz bala. Itsas-hegian gainerat, larunbat aratsaldean, mundu bat zeruari so, "Patrouille de France" delakoaren hegazkinen nolako balentriak egiten zituzten... Bi aldiz berrehun bat lagun ibili dira Recollets komentu xaharrean, ondarearen egunak zirela-eta. Sail beraren kondu, Donibaneko elizaren eta beste egoitza batzuen bisitaldiek ukan dute arrakasta ederra... Ziburuko kermezak ere ba bestalde.

ASKI KOPETA!

Donibane Lohizunen, Thiers ibilbideko tabako bulego eta prentsa saltegi bat, Totem izeneko, arrotatua izan da larunbat aratsaldean. Aski kopetarekin apailatu den norbaitek egin du lan txar hori. Gaixtaginak lau omen ziren. Batto gani-bet batekin dena mehatxu arizan da. Keinka hartan, nehor etzen ondo hartan, jendea bildua itsas bazterrerat orduan baitziren zeruan ibilki "Patrouille de France" famatuaren hegazkinak...

HENDAIA - Abbadiako jauregian Urriaren 5ean - 17:00etan

Euskal Herriko eta munduko kantuak Amaia Riouspeyrous eta Bostgehio taldearekin

"Kaperan, a kapela" saileko hirugarren emanaldia, hain xuxen, ahots hutsez iraganen da, Bostgehio taldeari esker.

Talde berri hori osatzen duten bost nekato gazteak dira: Pauline Lafitte, Manon Irigoyen, Alexa Dulin, Laura Etchegoyhen eta Maider Martineau. Elgarrekin mundu guziko polifoniak eskaintzen dituzte: Euskal Herrikoak, Errusiakoak, Bulgariakoak, Espainiakoak, etabar. 2007an *Les Maimorables* lehiaketa irabazi zuten, eta geroztik, kantu desberdin horiek giro goxoan partekatzea eta ezagutaraztea gustatzen zaie, helburutzat daukatela, bakarrik beren ahots-sokak dardaraztea!

Amaia Riouspeyrous, bere aldetik, kantari trebea du. Bere ahots bero eta indartsuarekin, atzoko eta gaurko kantuak ezin hobeki emaiten ditu. Hendaian, Philippe Albor gitarra jotzailea ukanen du lagun. Kontzertuaren antolatzailea Euskal kultur erakundea da, partaide dituela Hendaia Herria eta Antoine d'Abbadie fundazioa.

Atxik zuen tokiak urriaren 3a aitzin, telefonatuz: 05 59 20 04 51. Sartzea: 8 €. Jauregia bisita daiteke kontzertua baino oren bat lehenago.

centre distributeur

E. LECLERC

LECLERC IPAR BAIONA

R.N. 117 - PAUeko Bidea
edo Autopistaz Ateratze 6 (Baiona Iparralde)
IDEKIA ASTELEHENETIK LARUNBAT ARTE 9 ETARIK 20.00 ETARAINO.

05 59 50 30 50 SALTEGIAK

KALITATEA ETA HAUTUA

LABORANTZA GANBARAREN AUZIA 2009ko urtarrilaren 29an

Jendea saldoan bildu da joanden ostegunean Baionako auzitegi aitzinean, **Euskal Herriko Laborantza Ganbara** elkartearen eta hunen lehendakari den **Mixel Berhocoirigoin**-en sustenguz. Ehunka lagun, laborari ainitz bainan ere hautetsi, alderdi politiko, sindikata, elkarte eta bertze egitura askotakoak, eta beren ber jinikako presunak. Osteguneko auzia laster trenkatu da, defentsak auziaren gibelatzea galdegina zuenaz geroz, 500 orrialdeko dozier lodia behar den bezala aztertzeko. Eta hain xuxen, 2009ko urtarrilaren 29a gibelatua izan da, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) lau ilabete daukela bere defentsa prestatzeko eta bere inguruko sustengua oraino gehiago indartzeko. Ostegunean jakin da ere Paueko Laborantza Ganbara "partie civile" agertu dela auzi hortan, erran nahi baita prefeta eta bezaz frantses estadia lauzkatzen dituela Ainhizako Laborantza Ganbararen kontrako akusapenetan. Mixel Berhocoirigoin-ek salatu duen "jokabide hitsa eta grabea". "Atakatzen gaituzte bainan ez dakite nor atakatzen duten" ziola oraino, "zeren gure elkartearen gibelean, Euskal Herriko zati zabal bat da, ihardokitze ahalbide handiak dauzkan mugimendu sozial indartsu bat".
"Auzi hau irabazi behar dugu, eta irabaziko dugu, Euskal Herriko laborantza eta gizarte guziaren onetan", zuela ere suharki gehitzen. Elkarteburua aitzin, bide beretik mintzatuak ziren Maryse Cachenaute EHLG-ko lehendakari-ordea, Mattin Etxekopar "EHLG-ren adiskideak" elkartekoa eta Colette Pince hautetsia, hunek irakurtzen zuela Gerard Onesta Euro Legebiltzarreko lehendakari-ordearen sustenguzko gutun suharra...




Mixel Berhocoirigoin, Baionako auzitegi aitzinean

LEKUINEN, ITXAROPEN BIRADAK larunbatean eta igandean

Mukobisidosa eritasunaz joak direnen alde urte oroz sasoin huntan antolatzen dira **Itxaropen biradak** izeneko egunak, **Mukobisidosa garaitu** elkarteak antolaturik. Alabainan, egun horietan bildutako diruak estaltzen ditu eritasun horren kontra deramaten borrokaren gastuen %95a, mediku ikerkuntzak aitzina egin dezan eta eritasunak gibelera. 6000 presuna dira Frantziako mukobisidosaz joak, banabesteko heriotz adi-

laguntza. Larunbatean (14:00) Lekuineko Lilipean gelan mus lehiaketa. Igandean, hiru oinezko ibilaldi eta bi mendi-bizikletezko: 24 km oinez, 8.30etan abiatuz Lekuineko ezkerpareta sahetsetik, Abarratia eta Garraldan gaindi; 25 km mendi-bizikletez, Eltzarruzeko inguruak ere zeharkatuz; 10 km oinez eta mendi-bizikletez, 9.30etan abiatuz, Gerezieta eta Intxaurmendin gaindi,



na 24 urtekoa dutela. Azken ikerlaneri esker, halere, gaur eritasun horrekin sortzen den haurra 46 urte arte bizi laiteke...
Lekuinen, laugarren urtea dute **Itxaropen biradak** antolatzen dituztela **Julen** gaztearen familiakoek eta adiskideek. 2005ean 27.700 euro zuten kari hortara bildu, 2006an 32.500 euro eta 2007an 39.000 euro. Asteburu huntan ere jendeak nasaiki ekar dezake bere

2,5 km oinez, laburra eta errexa, haur ttipientzat bereziki aproposa, 11etan abiatuz. Ondotik bazkari herrikoia, Kiki Bordatxok alaiturik, aratsalde osoan izanen delarik haur joko eta musika, Mattin Irigoien eta Pantxo Etcheverryren "Debru mukubitxiluz!" kantuak ukanen duelarik ere hain segur arakasta. Peio Dospital, Xala eta De Ezkurra dira egun horien gozaitak. Egin urrats, eman hats!

Larrazkeneko besta ondarearen ohoretan

Deusik ez dute bertzetan bezala egiten Baionan. Udako lehen eguneko musikaren bestak ikusten dituzte hirian barreiatuak hirurogei musika talde baino gehiago; ondarearen egunari lotzen diote "ondarearen gaua", aurten ekitaldi bikoitz hau hiru egunetara



hedatu delarik gainera, ostiral arratseko Balixongo iturriaren estreinaldiarekin. Erran dezakegu musikaren besta, primaderakoa dela, eta ondarearen egunak larrazkeneko bestak. Hiru egunetz proposatua zen programa oparoaren barnean markatua izan da aurten botaluzeko partida bat Xaho zelaian. Argazkian ikus daitezke Aviron Bayonnais-ko pilotariak, xuri eta gaineko zeruaren bezalako koloreko atorrak soinean. Ikus daitezke ezker eta eskuineko puntetan Jakes Saldubehere eta Jakes Borda, Pilotazain batasuneko kideak.



LAPURDI

UZTARITZE

Kermeza igandean

Heldu zaigun igande huntan eginen da urte guziz bezala Uztaritzeko kermeza, Errobiko Salbatore parropiaren "sartzea" ospatuko dela denbora berean. Eguna hasiko da 11 orenetan meza nagusiarekin Bilguneko pilota plazan haurren eta klikaren parte hartzearekin. Bixkotxa saltze bat eginen da meza aitzin eta ondotik. Zintzur bustitze eta bazkari on batek berotuko ditu gogo-bihotzak. Bazkariaren saria 18 eurotan finkatua da eta hauxe izanen da janari: piperada lukainka, zikiroa, gasna, bixkotx eta denen pusatzeko behar den guziaz edariz. Aratsaldean zehar mus zoingehiagoka, jokoak eta loteriak. Aratsari buruz talo jatea. Ahalaz galdatua da bazkariarentzat izenak emaita telefono huntara: 0559931800 (apezetxera) edo e-mailez: ustaritz.paroisse@orange.fr. Ongi etorri hoberena deneri!

SENPERE

Ibarrungo Bestak

Asteburu huntan Ibarrun kartiereko bestak ditugu. **Ortizirale** aratsean Inharrean xerri kume jatea, izenak aitzinetik eman dituztenentzat. **Larunbat** aratsaldean, 15.00etan, errebotean palantxako lehiaketaren finalak hiru mailetan. 18.30tan zintzur bustitzea, 22.00etan kontzertua, gauerditan dantzaldia. **Igandean**, 10.30etan herriko meza bakarria Inharrean Jondoni Mikael patroinaren ohoretan. Urte guziz jende ainitz hor aurkitzen da. Emak Hor-eko soinulariek goraltxatuko dute meza nagusia eta ondotik errebotean alaituko zintzur bustitzea. Aratsaldean, 16.00etan, pilota partida. Alde batetik Sorhuet-Bessonart eta bertetik Egiabehere-Ezurra. Ondotik kantaldia eta gero mutxikoak. 20.00etan afaria Daguerre ostatuan eta 22.00etan dantzaldia. **Astelehen** eguerditan pilota partida. Batetik Valencia-Mariluz eta bertetik Aurkia-Aramendi. 17.30etan errebotean jostagailuak, 20.00etan afaria Bonnet ostatuan eta 22.00etan dantzaldia.

Gure eskolak

Bertzetan bezala, hemen ere ikasturte berrian sartu dire haurrak, gaztetxoak eta gazteak. Herriko ikastegietan ama eskolatik eta 11 urte arte ditugun kopuruak: Karrikako eskola publikoan 245 (zuzendari Xavier Dubernet jauna), Amozko eskola publikoan 50 (zuzendari Pierre Otaeche jauna), San Josep eskolan 175 (zuzendari Marie Jeanne Lasaga anderea), Ikastolan 70 (zuzendari Maialen Tapia andereñoa), Arretxeko kolejoan 190 (zuzendari Magali Zubillaga anderea). Erakaspen elebiduna egiten da Karrikako publikoan, San Josep eskolan eta Arretxean. St Christophe lizeoan ganden astean erran bezala, 195 (zuzendari Beñat Anchordoqui jauna). Orotarar 925. Asko tenoretan gure karrikan iragaiteko pazientzia beharko dugu. Denbora berean nahi nitzuke agertu herrian dugun "Maitetxoak" haurzaindegiaren berriak. Andere Bigourdan zuzendaria arduratzen da zerbitzu hortan, bere inguruan dauzkala haur artatzaile lanetan ohartuak diren presunak. Haurzaindegiak 36 haurren tokiak dauzka. Baina haur tipi ainitz horrat egun eta oren desberdinetan jinez, orotarar 139 haur hor itzulikatzen dire. Hor ere lana ongi eta behar den bezala egiteko behar ahal da kuraia eta pazientzia.

KANBO

Euskal bixkotxaren eguna

Irailaren 28an, igandearrekin, euskal bixkotxaren eguna iraganen da Kanbon. Eta aitzinako urtetan bezala, bixkotxa hoberenaren lehiaketa antolatua da egun horretan. Parte hartzeko bere izena eman behar da Kanboko turismo bulegoan, larunbat eguerdi aitzin eta hor ukanen dira xehetasun guziaz. Bi sail badira lehiaketa honetan: lehe-na bixkotx egile amaturerentzat eta bigarrena profesional gazteentzat (20 urte baino gutiago), aprendiz edo beste. Lehen sailean hiru sari badira irabazteko: Urrezko Eguzkia trofeoa eta 150 €, Kanboko herriaren trofeoa eta 75 €, Turismo Bulegoaren trofeoa eta 75 €. Profesional gazteentzat bi sari izanen dira: Ofizialeen ganbararen saria eta 100 €, kofradiaren saria eta 75 €. Igande goizean, 10etarik eguerdi arte epaimahaieko kideek beren lana egiten dute publikoaren aitzinean, trinketaren barnean. Eguerdi eta erditan, irabazleen izenak ezagutuko dira eta sariak banatuko, beti trinketean eta berriki sortua den Kanboko Euskal Bixkotxaren Kofradiaren kideen aitzinean. Eguzian, ikusten ahaliko dira Eguzkia elkarte ofiziale batzue bixkotxa egiten eta saltzen. Bertze saltzaile frango etorriko dira ere, edo artista, edo arte ofiziale, edo tokiko ekoizpen egile, eta Kanboko karrikan erakutsiko eta salduko dituzte egiten dituzten gauzak. 15.00etan, 35 akordeoi joileek kontzertu bat eskainiko dute kanpoan. 17.00etan, Adixkideak taldeko kantariak kontzertu bat emanen dute elizan. 18.30etan, esku huskako partida bat iraganen da trinketean. Euskal bixkotxaren egun hunen antolatzaileak dira: Eguzkia elkarte, Kanboko herriko etxea eta turismo bulegoa, Ofizialeen ganbara.

Paxkalekuko bestak

Karrikako besta komiteak antolatuz, joanden larunbatean iragan dira Paxkalekuko bestak. Kanboko xoko politt hortan bildu da jende andana ederra eta denek egun goxo bat iragan dute. Bazkaria hauta zen, tripotxak eta zikiroa biziki onak, eta giroa aldi guziz bezala, biziki alegera.

SEGIDÀ BAXENABARRE SEGIDÀ

KANTALDIA AIZIRITZEN URRIAREN 5EAN IGANDE ARATSALDEAN 15:30ETAN

Hona larrazkenaldien sasoina etorria. Eskaintzen dizugu kantaldi handi bat, herriko salan, urriaren 5ean, 15:30etan. Kantari talde andana polittak parte hartzen du. Hona nor kausituko den hor:

ENEKO LABE-GUERIE: lehengo Guk talde famatuaren segida hartua duena. Kantatuko dizkigu bere boz eder eta kartsuarekin berak asmatu kantauak. Bi musikarik laguntzen dute, NAT eta TITOFek. PÀGOLARRAK deitu hirukotea, LAURENT CASENAVE, ARNAUD UHALDE eta FRANÇOIS CAZETekin. Beti trenpean, kantatuko dizkigute Xiberuko kantauak. TXILIKA, Aiherra eta inguruetatik datorren taldea. Oraino sortu berria, baina nahiko talendu eta jakite duena. Hona izenak: ANA eta UGO CARRERE, MARINA SALLATO eta LAURA BIDE.



Pagolarrak taldea

V A L E R I E UHALDE, hau urkoitarra, bi CD argitaratuak dituen; ofizioz, musikari eta kantaria. Kantatuko dituen kantuetako doinuak berak asmatuak ditu. BENOIT ONDARS, Landibarretik jinen den gaztea. Fama ona bildua du herriko kanpo ere, eta atseginarekin egiten diogu ongi etorria. AMIKUZE KANTUZ, talde hau etortzen da gure besta guzietara, denon kantuz araraztera, kantaldia bururatzen. Sartzea urrikerik denendako. Sala berotua eta sonorizatua. Eskainia izanen da liburutto bat kantu guzien testuekin, ahalaz ez dituzagun berex kantaldia eta euskara. Kantaldi hau antolatzen du Aiziritzeko Euskal Kultur taldeak, EKEren laguntzarekin. Jin arratsalde eder baten pasatzera...

BAIONA

Baionan Kantuz : Sartzea

Baionan Kantuz'ek ere bere sartzea egiten du, hilabeteko laugarren larunbatean, hots betiko egunean, hotsa hartu ondoan uda bukaera huntan. Sartze bat goxoki egin nahi duena, joan den urtean ikasi kantu berriak gogoratu, ondoko hitzordueta beste berri andana bati lotu aitzin. Parada on bat izanen da larunbat huntako hitzordua, sasoin berriekin delibero berrien hartzeko. Hori-erarik bat aurtengo Baionan Kantuz'en present izaita. Errexa da, aski da laugarren larunbatean goizeko 11etan Lacarre plazan izaita eta mugimenduaren segitzea. Orduan larunbat arte!

BESKOITZE

Otxalde-ren gaua

Urriaren 4an, larunbat aratseko 9etan, Biltoki gelan, Otxalde taldeak "Ameslari" diska berria aurkeztuko du. Kantaldiarekin batera jastaten ahalgo da ere Pantzo Hirigaray ixtorio kondalariaren omore onetik. Ondotik, xortaño baten edatea eta mutxikoak. Sartzea urrikerik.



HAZPARNE

Herria maitez eliza maitez

Joseph Camino apezaren liburu berriak atera denetik arrakasta gaitza ukan du. Hazparneko erretor ohiak kondatzen du liburu hortan, bere Arnegi sort-herrian iragan haur eta gazte denbora goxo. Apeztu ondoan kurritu dituen herri guziaz orroitzapenean josiak dauzka eta Hazparneri orrialde multxo eder bat begi onez idatzi dio. Hel-duden urriaren 18an eginen du bere liburuaren izenpetzea Hazparneko Mediatekan, larunbatearekin aratsaldeko 4 etarik goiti.



Joseph Camino Apeza

Kontseilu nagusiko laguntzak

Huna azken ilabete hauetan Hazparneko hautetsi nagusiak ardietsarazi dituen diru laguntzak:

- Bideentzat: RD10 Hazparne Urkoin 140 000€ eta Ursuia karrikan 25 000€. Bertalde kantonamenduko bideentzat (Donamartiri eta Donoztiri) 315 000€.
- Irriskueri buruz egin obrentzat: Urkoin 50000€ eta Minhotzen 10000€.
- Kolegio ikastetxeentzat: Elhuyar 65870,33€, Ursuia: 167987,25€.
- Herriko etxeeri laguntzak: Hazparnen 674530,45€, Makean 18889€, Mehainen 14857€, Lekornen 16333€, Donoztirin 16333€ eta Donamartirin 31286,38€.
- Herri sindikatentzat: Arberuakoa-

- rentzat 27000€, Makea-Luhuso 27000€.
- Garbiki sindikatentzat: 241 572€
- Autobus sarientzat: SIVU Gure eskola 21830€, SIVU Ikas bide 29267€, Mehaine Armandaritzeko SIVU-arentzat 26864.52€.
- Hazparneko lurraldearentzat 1054152,00€.
- Elkarteeri laguntza kultur mailan: Soinubila 13208€, Lagun Arte 13634.18€, Traboules 10000€, Lehengo Hazparne 1500€, Euskal Herria Zuzenean 15000€.
- Kirol mailan: 29 923.85€ 14 elkar-teren artean zatikatuak.
- OGEC Hazparne 50073€, Laborantza mailean 29967,27€, Sozial mailean 4 73.50€.
- Aidatu lantegi mindegiarentzat: 22867€, CFAA ikastetxearentzat 20000€, Turismo bulegoarentzat 12000€, Hazparneko irrati batentzat 5090€.
- 212 810,80€

Berriko finalak

Joanden larunbat aratsaldean iragan dira Berria-ko palazko finalak. Hiru ilabete huntan ari zen lehiaketa hori trinketean eta 78 pare arizan dira hiru mailetako zoingehiagokan. Hirugarren mailan xapeldun atera dira: Boisan-Detchart, Larroux-Labadie-ren aurka 50 eta 41. Bigarren mailan: Balza-Mendiboure nagusitu dira 50 eta 37 Dattas-Lissar pareari. Lehen mailako finala haundian: Harramboure-Errecart atera dira xapeldun Elissalde-Dainciarten kontra, 50 eta 41. Oro elgarrekin afaldu dira tokian berean, irabazdunen omentzeko eta dokakabeen sustengatzeko.



Bi puntetan epaileak René Landagaray eta Richard Urrutigaray, erdian tinketeko nagusia Robert Marcarie. Irabazdun pare ezker eta finalistak eskuin.

ITSASU

Heriotze

Joanden astean zendu da eta ehortzia izan da René MASSON. Bere bizi osoa Itsasun eramana zuen, nahiz eta azken urte hauetan alabaren etxean bizi zen Uztaritzen. 76 urtetan zendu da René MASSON. Doluminak familiari.

Kontzertua

Kanboko ARRAGA abesbatzak kontzertu bat eskainiko du ostegun huntan, irailaren 25ean, Itsasuko elizan aratseko 20.30tan. Sartzea urrikerik.

Margo ikasketak

ITSASUART elkarteak ere urteko klaseak abiatuko ditu urriaren lehenetik goiti. Klase hauek idekiak dira arte lane-

tan (eta bereziki margo eta marrazki lanetan) lehen urratsak egin nahi dituzteneri. Klaseak Herriko Etxeko elkarte gelan emanak izanen dira asteazkeneko aratsaldeko 18.30etarik 20ak arte. Eta beste klase mota bat ere eskainiko du elkarte hunek, nolabait "teknikoagoa", jada tratuak direneri idekiak, adibidez akuarela edota tinta lanetan gehiago tratzeko, norberaren sorkuntzari edo kreazioari edo berdin inspirazioari tokia utziz. Klase hauek 2 larunbatetik emanak izanen dira goizeko 10etarik 12ak arte. Xehetasun guziaz jakiteko edo izenak emaita tel: 05 59 93 65 68.

BAXENABARRE



AIHERRA

Karatea, Aiherran !

Tony Etcheverry karate erakasleak jakinarazten dauku, joanden urtean bezala, bakantza haundien ondorekin, karate kirolarekin ezagutza egitea proposatzen duela Aiherrako Denen Etxean. Ikastaldi horiek, heldu ala haureri idekiak dira, astezken arratsetan 6 orenetan, eta larunbat goizetan 9tan. Xehetasun gehiagorentzat deitu 06 82 23 70 38 edo 05 59 29 64 02ra.

ANTZUOLA – AIHERRA : 24 urte

Aurten 24 urte du Aiherra eta Antzuolaren arteko adixkidantzako harremanak abiatu zirela. Bi herri hauietako lagunaren artean elgarretartzeko estakuruak merke baldin badira, urte guziz ofizialki egun bat antolatua da, aldizka han edo gure herrian. Aurten Aiherraren aldi antzuolaren erreberritzea !

Belzuntze elkarte eta Aiherrako Herriko Etxea dira egun horren antolatzaile. Horra aurtengo egitaraua : urriaren 12an, igandez, 11etan, antzuolarreri ongi-etorria Gaztetxea trinketean. Eguerditan Uhauneko eiherraren bisitaldi gidatua. Oren batean aperitifa herriko-etxeak eskainia eta bazkaria Denen-Etxean KIKI BORDATXO-rekin. Bazkaria 12 eurotan da, arnoa barne : kozina, xerrikoa barazkiekin, entselada, ardi gasna, biskotxa, kafea eta ondokoa. Zatozte saldo haundian eta forman, zuen kantuliburuak ! Gure lanaren erretzeko, izenak eman faltarik gabe urriaren 9ko berantean (ortzeguna), herriko-etxeko Maite-ri, bulegoko tenoretan : 05.59.29.64.02



Duela 2 urte, Aihertar sokatiralariak Antzuolaren parrean

HELETA

Eri
Paul Poydessus Salundeikoa operaturik dugu. Gure goraintziekin laster etxera dadila.

Dolu
Bere abantxu mendeko bizi luzean Mayi Etcheverry Agerrekoak bazuen ainitz gauza ikusirik, ainitz gora behera ere. 94 urtetan utzi gaitu lotarik ez iratzariturik gau batean. Bere bizi guzian lanaren inguruan eremanik, ostatuan pazientziaren jabe izaiten ikasia zuen, horregatik beti elhe on eta ezti batekin errebituak ginen. Fede azkar baten jabe, jasan behar izan ditu nahigabeak, bere senarra, errena, seme apezta joaiten ikustearekin. Eliza mukurru baten

erdian egin dira haren ehorzketak astelehen huntan otoi eta kantuen erdian.

Herria kaseta hunen irakurle, handi zaion opor bi asteak gabe izaita, joanden astekoa oro irakurririk joan bazira, aste huntakoan gure mileskerra igortzen dauzugu utzi dauzkuzun egitate guzientzat. Lehenago joan guziekin goza ezazu merezitua duzun bakezko eta zorionezko erreinua. Ikus arte.

Meza tenoreak
Ibiakoitzean, aratseko 9 orenetan, Heletan. Igandean, 9 orenetan, Iholdin eta Landibarre Martinen. 11 orenetan Mehainen eta Armendaritzen.

Herritarra


ARMENDARITZE

Heriotze : Joan den astean, bere azken egoitzarat segitu dugu Tehexa Lespade Sohuetakoa, 80 urte zituela. Emazte xintxo eta langile baten orroitzapena uzten dauku. Jainkoak har dezala bere aldean eta bere bi alabek eta bereziki etxean bakarrik gelditzen denak onhart ditzaztela gure dolumin beroenak, familiako bertze guziek bezala.

IHOLDI

Mus lehiaketa : Iholdi eta Heletako adin ederrekoek antolatuturik, mus lehiaketa handi bat iraganen da Hoxari gelan : lehen itzulia buruilarren 27an (14:30) eta bigarrena urriaren 4an (14:30). Izenak tokian berean eman ditzazte, aratsaldeko 2etatik harat. Parte hartze saria : 10 euro. Sari ederrak badira irabazteko. Aratsalde osoan jateko eta edateko.

IBAÑETA ANTZERKIA LARZABALEN



Ander Lipus

Piarres Larzabalen "Ibañeta" antzerki fama-
tua eskainia izanen da **urriaren 3an eta 4an**, ostiral eta larunbatez, aldi oroz aratseko 9.30etan, Larzabalen, Manex Erdozaintzi Etxart kolegioan. Karlomagnoaren tropek okupatu zuten Nafarroa, nafartar batzuk okupatzaileeri ihardokitzen zutela, beste batzuk kolaboratzen... 778ko Orreagako gudukada famatu hura gertatu arte. 1968an idatzi zuen antzerki hori Piarres Larzabalek, euskaldunak beti erresistentzian zaudelarik, garai hortan frankismoaren kontra. 40 urte berantago, hara beraz "Ibañeta" antzerkia berriz ere taulen gainean. Kristiane Etxaluzek bere inguruan bildu du hamabost bat antzerkilari amatur (Oztibarreko antzerki, Hiru punttu eta Kitzikazan/k-ekoak) eta, Ander Lipus bizkaitarra gidari, "Ibañeta" dute gogotik eskainiko, lehenik Larzabalen, ondorekin

Saran urriaren 19an (17:00) Lurberri gelan eta ere **Anhauzen urriaren 24an** (21:00) herriko gelan. Bide beretik aipa dezagun ere Ander Lipus-ek Larresoron azaroaren 8an (20:30) eskainiko duela "Hala mintzatu zen Zappatustra".



XUBERO



PASTORALA NAFARROAN

"Xiberoko Jauna" trajeriak Etxarri Aranatzen zūan hirugerren eta azken agerraldia setemeren hogeian. Neskenegūn goizean hiru autokar handi eta txipi bat Ezpeizen harturik, autobidez heldu gira akturrak, dendari-jostunak eta beste lagūn elibat. Karrika űngūrūa eginik, bost orenetan tauladala igan gira herriko pelota plaza estalian, bospasei ehūn jenteren aitzinean.

Zinez gozatū gira, gure hobereenetik emanez, eta pūblika ere laket izan da. Bai, zer pūblika hona ! Hori egiaz antzerkiala jinik zen, eta ez kalakan aritzera. Teatre haūtūetan bezala, jeltkaldi bakoitxa űstiatzen zūan isil-isilik, eta gero nolako eskūzarta tzarrakak !

Itxūra gūzien arabera, memento hunkigarrienak izan dira lehen jeltkaldia, Oierren amak senar gerlan hilaren korpitza kantūz ohoratū dūalarik ; Oier eta Miramondaren ezteiak ; haurren jeltkaldia, beren solaz eta dantza xoragarriekin ; Joana I.aren mintzaldi bihoztoi eta bihozpera, Pariseko űnibertsitatean "Collēge de Navarre" delakoa estrenatzen dūalarik, "Ecole Polytechnique" famatuaren arbasoa ; Oierren ehortzeta, otoiitzea ederkik kantatū ondoan azken hatsa emanik, bere gūdariak eremaiten dūalarik : orkestrak "Agur Xiberoa" emaiten dū, arrapika denek arrahartzen dūe, aktūr eta entzūn-ikusle. Azken kantorearen ondorekin, pūblika jeiki da jente bakoitxa bezala. Batzarri ezinago kartsūaz izigarri hunkirik űtzūli gira. Zorion bat izan da, ezin ahaztea.

J.L. Davant

Bortūkariak

Azken urte horietan egin ohi dūan bezala, dagūn igante hontan - setemeren 28^a, Bortūkariak alkarteak 'Esperantxaren biradak' egūnaldian parte hartūren dū, Lekuine űngūrūan plantatūrrik diren ebitte elibatetara joaitez. Egūnaldi hau plantatūrrik da 'mucoviscidose' eritarzūn izigarriaren goitzeko ikertzeentako sosa biltzeko xedean. Izigarria da bai, haur zombaiti jiten zaien eridūra hori, hatsaren hartzeko ahala emekimeki galtzen beituē, horren sendotzeko deūs ere ez delarik egitekorik, egūnko egūnean ja.

Egūnaldi horren mezūa "egin űrrats, eman hats" delarik, hiru ebilteren artean haūtūa badate : 2,5 km, 12 km, 24 km. Bortūkariak 12 nahiz 24 kilometrako űngūrūen egiteko asmūareki joanen gira, ebitbide horrek kurriaraziko gūtūalarik ondoko gūne horietarik : Haltzua (85 m), Gerezieta (200 m), Aramendi (193 m) eta - 24 kilometrako ebittea egitekoan - Garralda (470 m) eta Abarratia (342 m) tinietarik, azkenean Lekuinerat űngūrūz arrajitez. Ebitaldien űrrentzean, bazkari bat plantatūrrik date Lekūineko herri gela tapatūan et hontan ere parte hartūren dū Bortūkariak. Parte hartzeko gogoa dūanak, ez beza ahazt otoi sosarekilan jitea, gūti ala aski, jestua beita konta dena.

Lekuinera joaiteko gisan, igante goizanko 07:00 orenetan xūen algarganatūko gira Mauleko Zerbūtxūgūneko botūra baztergian edo Donapaleuko aūzetxe plazan, 07:30etan. Egūnaldi honen berri, aroa zer datean haborokin, emanik date ere, neskenegūn arratsean - setemeren 27^a -, 19:00etarik harat, 05.59.28.15.56 telefona zombakiala deitzez behatzen ahal den mezūan.

BIDARRAI

Aritzakunerat ibilaldia

Urriaren 5ean, igandez, oinezko ibilaldi bat antolatzen du Otxaldetarrak elkarteak, Aritzakunerat. Abiatzea goizeko 9.30etan Sumusunbordatik. Aritzakunerat aperitifa, Otxaldetarrak elkarteak eskainirik : txakoli, arno gorri, liranja jusa... Piknika baktokak eremanikakotik. Herriar guzieri luzatua da gomita hau. Etorri gostian, omore onarekin, egun goxo bat iragan dezagun elgarrekin ! Euria balitz, ez da ateraldirik izanen.

BAIGORRI

Ezkontza

Larunbatean ezkontzako sakramenduak elgarretaratu ditu Cécile Bergouignan eta Pierre Heriard. Bi gazteak eta beren burra-soak Bordele eta Parise aldean bizi dira, Bainan Cécile-k bere erroak Baigorriin ukanez, nahi izan du bere lagunari baia gure herriko elizan eman. Gure goresmenak eta agiantza hobereenak doatzi bikote gazteari eta agur beroak bien aitameri.

Heriotze

Joanden ortzegunean jendalde ederrak segitu du Artzain Xuriko Véronique Urriaz bere azken egoitzara. Urepelen sortua, lau haurren ama, 87 urtetan utzi du

mundu hau. Emazte bihotz eta bertute haundikoaren orroitzapena uzten dauku. Doluminak nahigabetan den familia guziari.

Errugbia

Joanden sasoinen mailaz jautsia, US Nafarroako errugbilariak Fédérale 2 mailean hasi dute aurtengo txapelgoa. Lehen partida Saint Girons-eko zelaian jokatu da eta 9 - 9 berdinketarekin bururatu.

Mezako tenoreak

Larunbatean 19.30tan eta igandean 10.30tan Baigorriko elizan. Urdozen ez da mezarik izanen.

IZTURITZE

Herriko bestak

Urriko lehen asteburuan ditugu urte guziz bezala. Aurten ere izanen da, antzerki, zikero, kontzertu eta beste, ostirale aratsetik astelehenerat, heldu den astean xeheki aipatuko dugun egitaraua. Gure gazteentzat haatik ainitz lan eta hain xuxen laguntzaileak ongi etorriak dira, dela oihaletxe muntatz, zikiroko mahai ezartze eta beste, beraz eskukaldi bat eman dezaketenek edo xehetasun gehiago nahi dutenek 06 11 25 52 12ra deit dezatela.

DONAIXTI

Ehortze : 74 urtetan zendu da Maiana Hourcade Senjimeneko etxekanderea. Familiaren doluari juntatzen gira.
Ezkontza : Hargindegiko Françoise Urruti eta Kartegiko Mixel Agergarai elgarrekin esposatu dira. Goresmenak haueri eta zorionak !

IBARLA

Sortze : Lehen haurra, Maitexa sortu zaie Oihanarteko Mirentxu Iriarte eta Jean-Marie Irigoien-i. Ongi etorri eta luzaz bizi bedi !

UHARTE GARAZI

Familien lekua : Hats-berri elkarteak urriaren 2an idekiko du bere "Familien lekua", Lasako bidean dagon "Haurren xokoan". Idekidura itzin haatik, Familien lekuaren estreinaldia eginen da **irailaren 27an**, larunbatarekin, goizeko 10.30etan. Interesatua oro gomit da leku berri horren bisitatza.

IRISARRI

Eskubaloia

Irisartar lehen taldeak galdu du bere gelan joanden ibiakoitzean, Bordeleko Girondins taldearen kontra 25-27. Partida erditan gurek 12-10 eramaiki bazuten ere, ondarrerat amor eman behar izan dute eta bordelesekin merezimenduzko garaipen bat dute ardietsi. Bi partida eta bi galtze, multxoko azkenak direla irisartarrak. Hea ba heldu-
den igandean burua altxatuko duten Biarnoan, Assonen !

JAINKOA BIZIA JENDEA

Irailaren 14an, Lurden bildu dira zernahi fededun, apez eta apezpiku, mundu guzitik etorriak, Benedikto XVI Aita Sainduaren inguruan. Zergatik? Mende bat eta erdi egiten baitu Bernadeta-ri agertu zitzaioala Maria Saindua. Hamalau urteko neska hori familia arras pobretakoa zen. Miseria gorria zer den bazakien errotik, etxe zahar eta zurmendu batean bizi baitziren. Aita eiherazaina, bainan laborariak bihi guti ekartzen. Beraz irina xuhur... Sosik ez familiaren hazteko! Bestalde Bernadetak bere ama behar zuen lagundu. Ardurenean etxen egoiten zen eskolara ezin joanez. Sukaldea berotzeko oihanera bazoan abar eihartu bila, Massabielle deitu gunera. Hango ibai ondoko hotzak kalte egiten zion, ez baitzen osasun azkarrekoa. Alabainan hatsa labur eta ezgulaldia merke. Egun hartan beraz, haizpe batean agertu zitzaion andere bat, argiz inguratutik, arrosarioa eskuetan. Ez dio berehala Bernadetari salatuko nor den, bainan bai galdetuko jin dadien zenbait egunez leku berera. Lehenbizian Lurden zehar neskaren erranak nehorik ez ditu sinetsiko. Zeruko gauzak jaun gobernadoreak ez hain laket, poliziak eta alkateak ere gutisko. Denak ariko zaizkio idorki mana eta mana bere solasak utz ditzan

BERNADETA

urrun. Harek aldiz ezetz, egia baizik ez duela erran haste hastetik. Poliz gizonak jendea luzaz atxikiko dute haizpetik urrun. Jaun erretorak, bere aldetik, ez jakin zer egin... Sekulan deabruaren lana balitz? Hain zuzen, asko aldiz, Bernadetak mezu bat ukaiten du anderearen ganik eta, martxoaren 25an, Mariaren bestakari, azkenean erraiten dio nor den: "Ni naiz bekatu-rik gabe kontzebitua". Lasterka badoa Bernadeta apez etxera, misteriozko hitz horiek errepikatuz bere baitan, ez ahanzteko gisan. Apezaren harritzea! Hain zuzen ere, Aita Sainduak Erroman finkatua zuen dogma hori lau urte lehenago. Orduetik apezak badaki Bernadetak egia diola eta Maria Saindua duela ikusten egiazki harpe hartan. Hona zenbait mezu, haurrak Mariaren ganik ukan dituenetarik: "Ez dizut hitz emaiten zoriotsu izaitea mundu hon-tan, bainan bai bestean. Jainkoari otoitz egin bekatu-rosen alde! Egin penitentzia! Zoaz iturrira edatera eta garbitzera!" Bainan han iturririk ez izanki! Mariak keinu bat, eta neskak zilo ttipi bat egiten du lurrean eskuz. Ura nasaiki ateratzen

da, haatik lurrez zikindua. Hala ere haurrak obeditu-ko du, baitaki aurpegia lohiz-tatzea zinezko penitentzia bat dela. Han dauden jendeeri erranen diote: "Bekatorosen alde dut hori egiten." Beste mezu bat: "Erran apezari hemen behar dela eliza bat eraiki. Jendea jin dadiela prozesioan". Azkenean Bernadetaren aurka agertu zirenak isilduko dira bat bestearen ondotik. Lur-dera milaka etorriko dira beilariak treinez, bakoitza bere arrangurekin, bizitza hau ez baita hain errega. Batzuk sendatuko dira, besteak ez, bainan hauek ere beren erita-suna jasaiteko indarra bilduko dute, ez baita guti. Geroago Bernadeta serora bilakatuko da eta Frantzia erdiko Nevers hirian egonen hil arte, 35 urtetan, gaitz larri baten ondorioz. Beti Jainkoaren alderako konfi-dantza atxiki du, umiltasunekin, besteek lurra baino apalago ezartzen zutelarik ere. Berak zion otoitza zuela bere arma bakarra eta Maria Sain-duak hautatu zuela denetan pobreena zelakotz, bai eta ez-jakinena. Erroman saindu izendatu zuten 1933an, Jesukrixtoren heriotzeaz munduko krixtau guziak oroitu ziren Urte Saindu hartan.

J.B. Etxarren-Lohigorri

HAUR LITERATURAZ MINTZALDI

Ikas pedagogia zerbitzuak antola-turik, Euskararen erakunde pu-blikoaren eta Hezkunde nazioanalaren partaidetzarekin, **Yvanne Chenouf** idazleak mintzaldi bat eskainiko du **Uztaritzen**, Lapurdi salan, **urriaren 1ean**, asteazkenez (14:30). Gaia: *Haur literatura*. Deneri idekia.



Yvanne Chenouf

MAIATZ 47



Irina Voinova bulgariar olerkaria

Udako alea argitaratu du Maiatz-ek. 96 orrialde aberats. Aldizkariaren hastape-nean, berriki zendua den **Aimé Cesaire** Martinikako poeta dute ohoratzen Lucien Etxezaharreta eta Itxaro Bordak, bide beretik garai bertsuan zendua den Mah-mud Dawich palestindar poeta ere gorapatuz. Gero hor dauzkagu, **lerroz lerro**, Luixa Giltzu, Mattin artzaina, Jakes Sarrailet, Etxahun Aurkenerena, Xabi Soubelet, Ixabel Etxeberria eta bertze idazle batzuren olerki eta kondairak... O-lerki goxoak batzuk, saminagoak bertzeak, denak gogo hazle.

Irina Voinova bulgariar olerkaria eta **Junes Casenave-Harigile** xiberotar idazlea elkarrizketatuak izan dira, beren obrak aipa ditzazten. **Liburu sasitik** sailan, asko lanen berri emana zaiku, Aita Marzel Etxehandiren euskarazko Biblia, Nafar poesiaren biltzarra Lizarran, Maiatzen Baio-nako solasaldiak eta bertze. Oroituz ere betirako joan zaizkigun horietaz, Henrike Knörr, Jakes Etchevery, Mercè Rodoreda katalana. Ondarrik **Oteiza** zizelkariaren obra eta pentsamendua zaizkigu gogoaraziak bai eta **Max Rouquette** okzitandarrarenak. 7 eurotan salgai.

TELEBIXTA LEIHOTIK



Bahituak: Berrikitan libratuak izanak dira bi frantses Somaliako itsas-la-purrek bahiturik zauzkatela. Aden-eko itsas golkoa ez da toki segur hori-etarik eta iduri luke XVIII. mendean bizi garela, itsas-lapurren garaian. Kolonbiatik ez da deus berririk, segitzen dute beren eguneroko bizi txarra hango bahituak.

Aste iluna: Estatu Batuetan bankuen dantza korda ikus daiteke. Mai-geuak direla eta bankuek dirua prestatu dute nola nahika, aberastu nahi-an eta gero beste banketxeen laguntza lortu partzuergo bati esker, denek hartzen zutelarik irriskuu, bai diruaren irabazteko eta berdin galtzeko. Galtzeko garaia etorri da Estatu Batuetan lehenik, krisia sortuz, zorretan sartu zirenek ez baitzuten ordaintzen ahal eta gero banketxeak ere galtzetan sartu, krisia hedatzen zela mundu osoan, European eta Asian bereziki.

Aski laster erantzun zaio krisiari ez dadien izan 1929-koaren pare. Gobernuak adierazi du berme jartzen zela eta, azkenean, Estatu Batuetako gobernu liberala jokatu da ezkerreko asmatu duen politika ginez, sozialis-tak iduri Bush eta bertze. Nork pentsatuko zuen holakorik?

Eguneroko politika: Reims-eko kongresuari buruz agertzen dira idazkari orokor gaiak: Segolene lehenik, gero Delanoë Pariseko alkatea Hollande-n laguntzarekin, eta azkenik Martine Aubry Lille-ko auzapeza. Sekulako ots-nahasmena eskuinak dionez. Bainan hots-nahasmena ere entzun daiteke gobernuan, batzuk diotela "bonus-malus" delakoa behar dela osoki hedatu, bertze ez dutela zerga gehiagorik nahi, jadanik bat gehiago badela R.A.S. delakoren ordaintzeko. Aipatzekoa da ere "Ed-vige" deritzan lege-gaiarekin zer gertatzen den eta nola MAM andereak bi urrats aitzina eginik hiruzpalau gibelera egiten dituen. Lege berri bat laster bozkatuko dena: ministroak beren kargua uzten dutelarik diputatu ala senadore albia bereganatzen ahalko dutela. Egunero errepikatzen digute mintzatuko dela Sarkozy ortzegun huntan Toulon hirian, mintzatzen delarik jakinen dugu zer erranen duen eta mintzatu dela adieraziko digute gero. Komunikabideen baliatze ona!

Erugbia: Akize nagusi etxen irabazi baitu Miarritzeren kontra (30 eta 18), hiru entsegu alde batetik, biga bertetik. Baiona ere nagusi etxen bainan ez aise (19 eta 12). Saikapen orokorrean Baiona hirugarren, Mi-arritze seigarren, Akize bederatzigarren eta Mont de Marsan hamahirugarren.

J.H.

HERRIKO BESTAK

Doina:
Txirrita-ren
"Frantses euskaldun bat"

1 - Herriko bestak muntatzen dira herritarrak jostatzeko Ez so egonez bakarrik bainan ahalaz parte hartzeko Lagunak dira beharrezkoak besta giroan sartzeko Oroz gainetik astiarekin bestaz ongi gozatzeko

2 -

Jaien hasteko, zoin eder meza euskara hutsez emana Ederragoa denen artean arinduz apezan lana Herriko dantza talde, kantari, pertsularieri bana! Muntzaileentzat piztuago den, ez da batere errana.

3 -

Berez musika da maiz alaia, puxanta eta gorraia, Bainan batzutan estal dezake hitzaren erran nahia Jai egun batez zergatik ez har kantu bazkari usaia Herriko plazan pertsu saio bat sartzera nundik ez saia?

4 -

Ez egon beti ospetsuenak diren multzoer begira! Kasik hain onak, merkeagoak badauka bere distira Artista saldo bat bada hemen; deituz pozik jinen dira Airostasun doi bat ezartzera zahar ta gazteen erdira.

5 -

Ardurenean ez da ahanzten pilota euskal jokoa Antzerki irri egingarri bat udan zinez gogokoa Gero iluntzetan mugitzeko, dantza jauzi, fandangoa Denentzat hautua ukaiteak pizten du besta gogoa.

J.L. LAKA

HERRIA

N° Commission paritaire 0509 G 84998

IDAIZTOKI-SEGETARITZA

64100 BAIONA

Tél. 05 59.25.62.85

Fax. 05 59.25.60.10

email:

imprimerie.labourd@wanadoo.fr
11, Jacques-Laffitte karrikan

URTE-SARIAK

Urtea	50 €
Laguntzaile saria	60 €
Sei ilabete	30 €
European	60 €
Ameriketako airekoz	92 €
	(117 dolar)
Afrikan airekoz	82 €
Asia	97 €

Lan eskaintza 15 €

Editions Basques HERRIA
- C.C.P. N° 3464 96 V Bordeaux
- Hegoaldekoentzat, Donostian
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA
Donostia Boulevard
Z.B. 075.0.70202.3

KAZETAKO PUBLIZITATEA

gutierrez 27 €

Directeur de la Publication/Zuzendaria: J.-B. DIRASSAR
Ohorezko zuzendaria: Emile LARRE
Zuz. ordea: J. HARITSCHELHAR
Idazleburua: P. JORAJURIA
Diruzaina: Mgr B. GOITY
Imprimeur: Imprimerie du Labourd
Irrakolan
8, Quai Augustin-Chaho
64100 BAYONNE/BAIONA
Tél. 05 59 59 16 42- Fax. 05 59 25 60 10



EUSKAL IRRATIAK

Irailaren 25a: Osteguna
• 19:00: Mintza leku, medi-kuntza barnekaldean,
Koxe Larre, Xabi Chaba-gno, Xabi Latapie....
Irailaren 26a: Ostiralea
• 07:00: Goiz berri: Lu-cien Betbeder Lekorneko Garroaz.
Irailaren 27a: Larunbata
• 11:00: Aitzina! emanaldi berria.
• 12:00: Petzero.
• 20:30: Errubia:
Aviron/Toulon.

Irailaren 28a: Igandea
• 09:30: Gure arbasoak Leitzatik.
• 10:30: Meza Idauze Menditik
• 15:00: Errubia: Maule /Marmande; Nafarroa/St Paul les Dax.
Irailaren 29a: Astelehe-na
• 10:00: Gure arbasoak: Behorlegiko Mañex Zubiat-en solasaldiaren segida.
• 19:00: Zer diozu: Andoni Aizpuru.

Euskararen erakunde publikoa

Office public de la langue basque



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

HERRIA KASETAREN LAGUNTZAILE

HARROBI, ETXEGINTZAKO PUSKA

Entreprise

DURRUTY

EUSKAL HERRIKO ETXEA
MUNTADURA ETA OBRA GUZIENTZAT
SO.BA.MA.T

EDOZOIN LAN edo ANTOLAKETA

ETXE ITZULIEN APAINTZE eta BIDE ESTALTZE

Av. d'Ursuya. B.P. 31 - 64250 CAMBO-LES-BAINS

© 05 59 29 71 04 - Fax 05 59 29 89 13



SORHUET - KURUTCHARRYK LEKORNEN XIPIRENETAKOA

Sorhuet - Kurutcharry . . . 50
Ibarrola - Oçafraïn 48
Lekorneko bestek beren ohitura zaharrak badauzkate, eta zinez haundizki. Finala hunek, herritar eta pilotazale, gaitzeko jendea bildu du eta, gehiago dena, loriatu. Xehetasun osoak ezin emanean bagaude ere astelehen arats huntan beroan bero, hau segurik erran deza-kegu. Guduka eder hortan Ibarrola eta Oçafraïn aitzinean ibili badira ere luzaz, besteak ez dituela horrek lotsatu. Sorhuetek bururaino atxiki du bere kar bizia eta baigorriarrak, beti berdinean iraunik, erakutsi du aldi huntan balio duela partida luzean ere, hobereen kontra berdin berdina. Lau pilotariak merezimendu berean ezartzekoak dira eta ez da hori ahantziko aurtengo Xipirine Lekorneko trinketea.

Ibarrola - Oçafraïn 40
Bielle - Ezcurra 15
Partida hunekin hasia zen Lekornekoa, lehen finalerdia. Baina zuk, irakurlea, pilotarien berri jakin-eta, konprenitua duzu kondu hortarik nun den partida horren gakoa. Bielle arrosatarrak, orai berezko pilotari berria deitzen ahal dugunak, ezin eman du berea batere, eskua funditu baitzaio partida hasita laster. Handik harat bixtan da ez zitakeela gehiago partidarik izan. Kuraie, Filipe, eta ez lotsa : beste batek ordainduko dik aurtengo eta ez haute pilotazaleek ahantziko !

Sorhuet - Kurutcharry . . . 40
Etcheverry - Etcheto 35
Bigarren finalerdi hau jadanik haundizki gozatua zuen jendeak Lekornen eta bazuen zeren. Sorhuet sekulan bezain bolboratsu zen aitzinean eta Kurutcharryk, gibelean, iduri zuen harendako egin, gainerat arras gustukoa izan behar duen trinket hortan. Denaden, 30etan ez zen deus eginik, orduan elgarren bete baitziren, adosean. Handik goiti da egin partida eta irabazleek irabazi finalerako txartela, afariarekin, aingirak eta oro, on zaizkionarentzat, nundik ez !

GARATENEAN

Ezcurra - Lazcano 50
Lambert - Saint Esteben . 31
Alta astelehenean Lekorneko finala ere (ikus gorago) zelarik bestalde oren bat barne, bazen jende partida huntan, udazkeneko sasoina ez bururatu kanpotiarrekin, eta betiko herritarrek nundik ez ? Partida huntaz zer erran ? Denak arizan direla, bakotxa bere gisan baina gisa hori dute desberdina. Hots, Patrik Ezkurra lehenak emaiten zuen hor

berriz ere erakasle zaharra, zahar baina beti ernea ere, beste hiru putiko azkar eta sano horien hezten ari. Heziko da heziko hola ari den gaztea ere, denborarekin, besoa segurik badute eta holakoak direlarik ahalak... jin ditela usu holaxet, beti hobearren menturan eta publikoa bada beti Garazin.

Heguiaphal - Oçafraïn . . . ?
Ibarrola - Lazcano ?
Horra helduden asteleheneko partida, lhiztarien Kopa hortako beti, Garatenean.

BESTE BERRIAK

-Gazteen trofeoan Diribarne-Laborde, Othegui-Azkona 40-27. Olaizola-Cubiati, Telechea-Lucu 40-22. Mainhaguiet-Lafitte, Bernard-Mendiburu 40-14. Guichandut-Carricart, Inchauspe-Tambourin 40-39. Monce-Salaberry, Anchordouqui-Ducassou 40-35. Aldiz, Daguerre eta Duhalde biak eskutik minez.

-Arbonan Jokoberri : Oyhenart-Heguiabehe, Tellier anaiak 40-31. Lavielle-Benese, Hiriberhonde-Lamure 40-30. Belascain-Saint Esteben, Heguy-Lambert 40-18. Sorhaitz-Itoiz, Saldumbide-Sahasquet 40-20. Holaxe doa Arbonako lehiaketa hori betiko arrakasta berarekin.

HEGOALDEKO PARTIDAK

Bengoetxea VI - Beloki . . 22
Irujo - Pascual 10

Belloso - Eskudero 18
Cabrerizo - Apeztegia . . . 12

Chafee - Otxandorena . . . 22
Laralde - Zubieta 11
Logroñon aise galdu dute bi beso haundiko pilotariak, xapeldunaren eta Belokiren kontra.

Antxia - Garmendia 22
Nagore - Mixelena 11

Camarero - Gorriti 22
Lasa - Altuna 13
Rio Tobiako mainutegietan jokatu dira hauk.
Capellan - Nalda 22
Arretxe II - Mendizabal II . 16

Olaizola II - Barriola 22
Titin - Begino 5

Apeztegia - Urberuaga . . 18
Mendizabal I - Iza 13
Hauk ere Logroñoako Adarragan, tokikoaren zafaldiarekin.
Urdaniz - Gorriti 22
Antxia - Altuna 19

Mikel - Huarte 22
Bengoetxea VII - Mixelena 18
Antsoainen jokatuak.

Bego

PILOTARIEN BILTZARRA

Pilotarien biltzarkideak bilduko dira urriaren 5ean Larzabal, beren urteko biltzar nagusian. Biltzar nagusian zuzendaritzako heren batentzat beharko da bozkatu. Azken epea bere buruaren aurkezteko : irailaren 26a helaraziz gutuna Robert Poulou jaunari. Arnagako eihera, 64250 Kanbo.

Aurten ohoratuak izanen dira : Michel Supervielle, Jacques Iroumé, Raymond Caracotche, Sebastien Berhouet, Marcel Urricariet, Michel Maitia, Georges eta Jean Marie Mailharo, Bertrand Ithurralde, pilotaren zerbitzari leialak izan baitira.

10etan mezarekin hasiko da eguna, 11.15etan biltzar nagusia, 12etan gazteen arteko pilota partida, 13etan bazkaria. Bazkarian parte hartzeko deitu behar da Larzabaleko trinketa Olharan 0559378157 edo Robert Poulou 0559932241.

“DENDARIEN ESKUÑOAK”

Donibane Garazin, herriko etxean ikusgai urriaren 4-a arte, bada, Argian elkarrearen eskutik, argazki erakusketa berezi bat. “Dendarrien eskuñoak” deitzen da eta izenaren arabera da segurki. Argazkiak Isabelle Henry artixatak artoski hartuak, denak xuri ta beltzez, Lagun elkartearen dabilzatan jostunen lanak ikusiz eta oroz ginetik hor dendaritzen ari diren horien eskuak, esku horien jestu eta mugimenduak...



EUSKALKIAK ETA EUSKARA BATUA

Battitu Coyos-ek mintzaldi bat eskainiko du irailaren 27an, larunbat aratsaldean (16:00) Baionan, Eusko Ikaskuntzaren egoitzan : “Euskalkien eta euskara batuaren lekua XXI. mendea atarian”.

Frantsesezko eta euskarazko mintzaldi honetan oraino euskalkien egoerari buruzko ikuspegia eman du. Zein da duela guti arte erabilera-araua ziren euskalki hoi lekua eta zein izan daiteke elkarbizitza horren aurrekusteko bilakaera ? Edozeini idekia den mintzaldia.

AUÑAMENDIREN IBILALDI NEURTUA BAIGORRIN

Auñamendi elkarteak antolatzen du bere 36. ibilaldi neurtua, **urriaren 5ean**, igandean. Abitzea egingen da Baigorriko plazatik, goizeko 8.30etan. Partehartze saria : 5 euro. Mendizaleak ibiliko dira binaka edo gehiagoka. Ez da lasterraldi bat bainan ibilaldi neurtu bat, 20 km-tako xendretan barna, Paulegi, Antziaga eta Buztanzelain gaindi, itzultzea izpegiko lepoan behera, jakobe bide zaharretik (6 orreko itzulia guti gorabehera). Gutizia dutenek, ibilaldia luza dezakete Nekaitzeko lepoa eta Urrizpilotan gaindi (24 km, 7 orre etordi). Ez ereman haatik zakurrik, artaldean alapidetan pasatzea gatik. Ez ahantz hamarretakoa ! Xehetasun gehiago 06.77.35.54.19.



ZERNAHI ARRRAIN HILAK

Azken egun horietan, Landesetako itsas-aldean bainan ere Angeluko ondo hortan, zernahi arrain, mota askotarik, agertu dira zerbait gisaz hilak. Xuxen ezin erran zergatik hilak bainan aintitzen ustez kotsadura zerbait hedatu delakotz itsasoan...

AUTONOMIA ERAIKI

Autonomia Eraiki taldea 2007an sortu zen helburu bikoitzarekin: gataska gaintzeko bake prozesuan parte hartu eta **Autonomia** bultzatu instituzio gisa eta burujabegarri izan dadin gizarte proiektu gisa.

Hortarako, eta zapalkuntzaren igoaldi arranguragarria ikusirik, Autonomia Eraikik euskal herritarrek abisatu nahi ditu ezagunak diren 3 militante politikoei, Zigor, Jon eta Charlok jasaiten duten egoeraz. Militante horiek, estatu espainolaren politika jasanaren ondorioz izan diren alderdi zombaiten ilegalazioa edo hauen arduradunen presondegitratzea baita kazeta batzuen hesia edo oraino iparraldeko 35 banku konduen blokatzeak bezala, eraso berdina pairatzen dute. Aldi oroz adierazpen politikoaren tresnak dira hunkiak eta pensatzeko eta adierazteko askatasuna zangopilatua. Euskal Herrian iritzi edo pentsamolde delitua jarria dute eta honen izenean nor nahi zapalkuntzaren aztaparretara eror daiteke.

Autonomia Eraikik agintari politikoeri oroitari nahi die, elkarrizketak baizik ez duela gatazka gaintzen ahal. Historia hor dugu lekuko, zapalkuntza ez da sekulan aterabidea izan.

Deitzen ditugu beraz, herri honen axola eta herri hortan ardura edo eragina duten euskal herritar guzikiak Estatu espainolaren politika errepesiboari uko egitea eta elkarrizketaren eta bakearen alde diren ekimenak bultzatzea.

Autonomia Eraikik, Euskal Herriaren gataska gaintzeko atarabide demokratiko baten nahia eta beharra baieztatzen eta erreferendumaren bidez euskal herritarrek beren nahikaria libreki adierazteko aukera ukan dezaten eskatzen duela berresten du.

AUTONOMIA, LEHEN URRATSA ASKATASUNAREN BIDEAN !

Autonomia Eraiki 2008ko buruilaren 15-a.

ASTELEHENEKO ARRASTATZEAK

Astelehen goizean 6 presuna arrastatuak izan dira Laurence Le Vert jujearen manuz eta polizietean galdezkatuak. Arrastatze arrazoinak ez dira batere argiak. Diote Donibane Garaziko Kalaka ostatuari lotuak litaizkeela, ostatu hortako “irabaziak xuritzea gatik”. Arrastatu horiek ziren : Arño Harispuru, 77 urte, Ibarlako auzapez ohia ; Jean Marie Irigoien, ibarlarra ere, 35 urte ; Alfred Uhart bunuztarra, 79 urte ; Chantal Zanponi, Ezterenzubi ; Gerard Ihdoy kantaria, Uharte Garaziko hautetsia ; eta Maurice Arhets Hazparneko erretora. Denak libratuak izan dira astelehenean berean. Horien sustenguz, 150 lagun bildu dira Donibane Garazin eta bertze hainbertze Larzabal, astelehen aratsean. Bertzalde, milako bat lagunek dute manifestatu Donibane Garaziko karriketari, iragan ibiakoitzean, Kalaka ostatuko bost lagunak sustenguz.

SINDIKALISMOAREN HARAT HUNATAK “1968ko maiatza eta gero”

LAB sindikatak antolatuturik, sindikalismoaz biltzar publiko bat beharra da irailaren 26an, ostiralean (19:00), Baionako I.U.T-an, Santandres plazan. Hizlari : **Jean Pierre Duteuil** (“Mai 68 une histoire politique”) eta **Gisele Lougarot** (“Pays Basque Nord : Mai 68 en mémoires”).

LEGEZKO ABISU

SARL INDA BI
Société à Responsabilité Limitée au capital de 88 000 euros
Siège Social : 32 Rue du Palais de Justice
64120 SAINT PALAIS
B490 241 494 RCS BAYONNE
RCS BAYONNE : 490 241 494
Aux termes d'une décision du 27 Août 2008, l'Assemblée Générale Extraordinaire des associés de la SARL INDA BI, a désigné monsieur INDABURU Bruno cogérant de la société à compter du 1^{er} juillet 2008.
Les mentions sont faites au RCS de BAYONNE.
La Gérance.

SESKETAN SCI
Société Civile Immobilière au capital de 1.524,49 E
Siège social : HENDAYE (64700) Résidence Sesketan,
107 Boulevard de la Mer
Transféré à URRUGNE (64122) Chemin des Crêtes, Villa Iratzekoborda
333 147 064 RCS BAYONNE
Transfert de siège social
L'Assemblée Générale Extraordinaire des associés tenue le 25 Mars 2008 a décidé de transférer le siège social de HENDAYE (64700) Résidence Sesketan, 107 Boulevard de la Mer où il se trouvait précédemment à URRUGNE (64122) Chemin des Crêtes, Villa Iratzekoborda, et ce à compter du 25 Mars 2008.
L'article 4 des statuts a été modifié en conséquence.
*Pour insertion
Le Gérant*

INBIDO

ITSAS-ONDAREA ... ETA JATEKO HAUTAK

Ondarea gogoan ginabiltzan hemen berean joanden aste hortan. Eta geroztik iragan dira beraz aintz eta aintz gisetarat ospatu diren **Ondarearen egunak**. Hainbeste eta hainbeste ospakizun nun denak laburbilduz ere ez baita erretx aipamen egoki baten egitea...

Azken aldian erraiten ginuena, ondareak hain ditu eremu zabalak hartzen nun zernahi sar baitaiteke holako sail batean! **Azkainen** konparazioa, Larrun mendiko mazela horietaraino ekarraziti dituzte Napoleon-en denborako soldado jauntzietan plantatuak ziren batzu, oroitaztea gatik nolako gudukak izan ziren kasko horietan 1813-an. **Irisarrin** aise urrunago beha ibiliak dira, aurre-historiako jendeak gogoan... Eliza, kapera, jauregi, eihera zahar, harpe eta holakoetan zonbat bisitaldi ez da bestalde muntatu...

ITSAS-BEGIA BETI ERNE

Donibane Lohizunen, gaitzeko egitarau nasaia bazuten moldatua, ekitaldi desberdin askorekin. Eliza eta lehengo egoitza eder batzu hobeki ezagutarazteko xedetan. Bere aldetik, **Itsas-Begia** elkarteak nahi ukan du berriz ere erakutsi zoin axola handia daukan itsas-ondareaz. Kaia nagusian paratuak zituen hamabi taula apaindu, Ipar-Euskal-Herriko portuetaz eta portu horien historiak. Argibide guzikiak euskaraz eta frantsesez. Oroitaraziz **Getarian** konparazioa Erromanoen denborakotzat bazirela arrain gazitegiak eta hor egiten zutela ere latinez "garum" deitzen zuten saltsaki gazia... Erdi-Aroan, Getaria hortan berean, bazirela bost txalupa handi balea ihiz in ibiltzen zirenak eta beste hiru ttipixagoak... **Zokoan**, 17. mendean oraino, portua eraiki zenean, bazirela berrogoi bat balea-untzi horietarik...



"Martina" aspaldiko batteku politaren aitzinean, Itsas-Begiaren bi kudeatzaile, Jakes Olazagasti eta Antton Goicoetxea.



Altxa Mutlilak agerkaria laster aterako dela, "errekla" gaitza egin dio biziki sanoki Dominique Duguet Itsas-Begiaren elkarburuak.



Bakalaua Nafarroako gisan prestatua, Rafael Indo sukaldari.



Lauburu itxurako orkeiak, lehenak aurtun agertuak...

Itsas-Begia bazuen kaia ondat ekarria "**Brokoa**" txalupa handia, bai eta traineru bat eta batteku bat. Ikasi dugu Erdi-Aroan jadanik batteku horiek bazutela nehorik uste baino arrakasta gehiago. **Bermeo** bizkaitar herriko itsas-kofradiak bere paper zaharretan gisa hortako untziak aipu zituen 1353-kotzat. Ez hain aspaldi oraino, batteku asko baliatu dira Iparaldeko portuetan, arrantzako segur baina ere Hendaia eta Hondarribia artean ibiltzeko...

Itsas-Begia arizan da ere oroitazten laster jalgitzeko dela **Zokoan** moldatu **Altxa Mutlilak** agerkariaren zenbaki berria, auzoalde hortako ondarea eta historiari buruz lantua izana, mirakuluz biziki ederra eta aberatsa. Lau ehun bat orrialde, zernahi argazkirekin, egiazko altxor bat...

Bakalaua Nafarroako Moldean... Ondarean sar ditazke ere jateko eta edateko on guzikiak. **Donibane Lohizunen** presesi, eta hau ere portu bazter hortan izan da, **Bizi Ona** elkarteak bazuen muntatua bere merkatua, Kostaldeko Berrietan aipatzen duguna bestalde. Bazen nun zer ikus eta nun zer ikas ere. Toki berezi bat egin zaio, jateko hauten sailean, Nafarroako moldean prestatu bakalauri. Sukaldari, **Rafael Indo** bere lagunekin.

Bakalau gisa hori deitzen dute españolez "ajo arriero", euskaraz ala frantsesez ez omen du izen berezirik, ez segurik jas-tarazi daukutenen jakinean. Bakalaua xehaturik ezartzen da tomate saltsa batean, baratxuria frango ausarki emanez, Ezpeletako biperretik ere doi bat, bestalde tipulaño bat eta perrexila poxi bat. Olioa ere behar du, olibatik egiten den oliotik...

NUN KAUSITZEN DEN LAUBURUA... Gure **lauburu** famatua, frangotan euskal-kurutzea deitzen dena, aintz gisetarat sartzen da han eta hemen. Baina bazikiten ustegabeko baliamolde bat kausitua diola Britainiako etxe batek, Moldeo etxeak? Etxe horrek zernahi orkei mota asmatzen du, bixkotxa egiteko edo beste pastaki zernahirentzat ere sukaldaritzan baliatzen ahal diren orkeiak, bakoitxak ba bere itxura berezia. Sailaren sustatzaile, Britainiako Kerouel herrixkan bizi den emazte gazte erne bat, **Véronique Istin**. Hasi zen Britainiako "triskell" ikurgarri-arekin, gero lantuz lore eta gaineratik frango, berrikitan beraz bere ekoi-zenetan sartua du euskaldunen lauburu... Eta Bizi Onaren merkatuan, Donibanen, baziren orkei horietarik salgai, beren moldean gure ondareari begi keinuka ari nolazpait...

Muslaria

Artzain amerikanoen ohoretan Elizondon

Egun zinez ederra izan da iragan igandean Baztango Elizondon, Ameriketako artzain izan zireneri eskainia. Aitzineko urteetan Sunbillan, Lesakan, Aldude eta Gernikan egin bezala, aurtun Baztanen egin da amerikanoen ohoretan antolatuta besta hau, andana bat jende bildurik eta Ameriketako euskaldunek zeramaten bizimolde eta ohidurak bilduz eta erakutsiz. Eguna goizeko hamarretan meza nagusiarekin hasi zen Elizondoko Santiago elizan, ondotik kabalkada bat egin zelarik, gisa amerikanoen zaldi gaineo bakeroak buru.



Zaldi gaineo bakeroek hasi zuten kabalkada iragan igandean Elizondon

"Euskal Sheep Camp" izeneko kanpamendu bat eraiki zen Elizondon, eta hameka orenetarik goiti ehundaka amerikano eta heien ahaideak bildu ziren hartara. Gehientsuak, bistan da, urte batzuk Wyoming, Arizona, Utah, Kalifornia edo Nevadako bazterretan lan egin eta gero egun Euskal Herrian bizi direnak, baina baziren bizkitartean Ameriketarik helduak ere, hala nola beste anitzen artean Pettan Osinalde lasarra, Jose Luis Urrutia mezkiriztarra, Manuel Villanueva Los Angeles-etik heldua edota, Mexikotik, Juanjo Arrieta eta bere emazte Lourdes Arrechea, azken hauek ez artzainak baina bai beste molde bateko euskaldun amerikanoak, Juanjo baztandarra eta Lourdes Mexikon sortu baztandarren alaba eta margolari trebea.



Jende andana polita bildu zen. 'Welcome Euskal Sheep Camp' emaiten zuen ongi-etorria seinaleak. (Argazkiak: EuskalKultura.com)

Han zirenek artzainen oihal-etxola eta karrokanpoak ikusi ahal izan zituzten, ogia lur azpian nola egin eta 'manabarra' deitu jana nola kozinatu. 'Mihi urdina' deitu eritasunaren karietara ardiekin egin behar ziren zenbait erakustaldi ez ziren egin. Bazkarian, Elizondoko pilotalekua guziz bete zen, 700dik gora jende bildurik. Musika eta bertsoak edertu zuten ekitaldia, tartean Martin Etxamendi ezterenzu-biarraren —haren emaztea baztandarra da— kantu bat eta baita hiru emazte antolatzaile nagusiek egin eta kantatu kantua ere. Hiru emazteak Laura Igantzi, Neli Yanci eta Josephine Etcheverry dira, artzain amerikanoen alabak hiruak, ekitaldi osoa maitasun eta lan handiz antolatuta zutenak. Zozketak ere egin ziren, eta sarietarik bat, ekitaldian partzuer zen Pierrot Erramouspe lagun aldudar ezagunak irabazi zuen.

Baina eguna pasatu, eta ere goxoki pasatu bazen, bada origarri berezi bat paperean ere iraunen duena: liburu berezia egin da, Ameriketako artzain ibili ziren Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko artzainen izenak eta istorioak biltzen dituen. 'Diario de Noticias' egunkariak, Baztango Udalak, Nafarroako Gobernuak, Artzain Mundua elkarteak eta Udalbide erakundeak argitaratu dute elkarrekin eta 224 orrialdean baztandarren 125 lekukotasun biltzen ditu, 300 bat potretaren laguntzaz. Liburuak 'Ameriketarat gana, artzain doike' du izena eta Diario de Noticias egunkariarekin eros daiteke.

Joseba Etxarri

Asteburuko Hitzorduek

- Ortzegunean, **Baionan**, Robles-Arangiz egoitzan (18.30) eta **Ainhizan**, Laborantza Ganbaran (21.00), André Chassaing deputatuaren mintzaldia : "Jitez aldatu izakietaz Legebiltzarrean eztabaidak"
- Ortzegunean (21.00), **Azkainen**, euskal dantzak Xurio plazan Airoski taldearekin.
- Ortzegunetik larunbatera, **Baionan**, Grenet zubi ondoan, Innobat feria
- Ortzegunean (20.30), **Itsasun**, Arraga koroa kantari elizan.
- Ortziralean (21.00), **Angelun**, San Josepe elizan, Kantaldia Haiz'Egoa koroarekin.
- Ortziralean (20.00) **Miarritzen**, Atabal musikategian, Iparaldeko Konpilazioa.
- Ortziralean (20.30), **Miarritzen**, Koliseo gelan, Antonio taldearen ikusgarria, kantu, antzerki eta dantza.
- Ortziralean (20.30), **Donibane Lohizuneko** elizan, Goraki, Tximi Txama eta Otsailan taldeak kantari, beste kantari batzu ere, Jesus Aured akordeonixta laguntzaile.
- Asteburu guzian, arrabesta **Urdiñarben** eta bestak **Senpereko Ibarrun** auzoaldean, **Amorotzen** eta **Pagolan**
- Larunbatean, **Angelun**, kukuso-feria Quintaou plazan.
- Larunbatean, **Donibane Lohizunen**, jai-alai ezkerparetan, Elkartearen eguna.
- Larunbatean, **Uztaritzen**, zaldiaren besta
- Larunbatean, **Irisarrin**, arrabesta
- Larunbatean (10.30) **Uharteko Garazin**, "Familien lekuaren" estreinaldia
- Larunbatean (11.00), **Baionan**, Baionan Kantuz Lakarre plazatik abiatuz.
- Larunbatean (16.00) **Baionan**, Eusko

- Ikaskuntzaren egoitzan, Battitu Coyos-en mintzaldia : "Euskalkiak eta euskara batua XXI.mende hastapenean"
- Larunbatean (18.00), **Baionan**, Lakarre plazan, "Bihar jaio nintzen" dantza ikusgarriaren aurkezpena.
- Larunbatean (20.30) **Heletan**, Itsasoa egoitzan, "Ateliers en folie" antzerkialdia
- Larunbatean (21.00), **Ainhoako** elizan, Añsulai abesbatza eta Vayres herriko koroa.
- Larunbatean, **Lekornen**, arrabesta konduko Gau-pasa.
- Larunbatean, **Bankan**, "La Rosée" etxeak ospatzen bere berrogoi urteak.
- Larunbatean eta igandean, **Urruñan**, Sagar-Tinka egunak.
- Larunbatean eta igandean, **Miarritzeko** karriketan, udazken hasteko merkaldia.
- Larunbatean eta igandean, **Urruñan**, Erlaitz-bideko besta.
- Igandean, **Angelun**, Zaldi-elkartearen biltokian, zaldi-besta.
- Igandean, **Hendaian**, selauru-hustea Zokoburu auzoaldean.
- Igandean (11.15), **Donibane Lohizunen**, Kaskarot-Banda herriko etxe aitzinean
- Igandean (11.30), **Hendaian**, mutxikoak Gaztelu-Zahar plazan.
- Igandean, **Angelun**, kermeza **Uztaritzen**.
- Igandean, **Angelun** eta **Lekuinen**, "Itxaropen-biradak", mukobisidosa gaitzaren kontrako ibilaldiak.
- Igandean, **Donibane Lohizunen**, Korsario kofradiaren biltzarra eta besta.
- Igandean, **Kanbon**, Euskal-pastizaren besta.
- Igandean, **Bardoze**ko plazan, selauru-hustea.

SALBAIAK

Oraiko salbaiez mintzo naiz. Ez dira eguneroko ebasleak, itsasoetako lapurrak, hiltzaile edo gaiztagin horietarik egunkarietan aipatzen direnak, are gutiago gertatzen jendea bortxatzen, bahitzen dituztenak. Ez, oraiko salbaiek banketxetan bizi dira, jauntzi ederrez bezituzturik, ttattarradunak atorra xuritan. Diru jokoak maite dituzte eta diru joko horiekin aberasten. Jostaten dira petrolioaren edo metalki arraroen gora beherekin. Salbaia segurki oraiko kapitalismoa.

Gehexan Pontto